Se trata de un convenio mixto, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Séptima, apartado 3º, de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo de Euskadi, ya que contiene aspectos correspondientes al planeamiento urbanístico (convenio de ordenación) y a la gestión urbanística (convenio de ejecución).

En todo caso, y conforme lo dispuesto en el apartado 5 de la misma Disposición Adicional Séptima, el Excmo. Ayuntamiento de Zuia conservará en todo caso la plenitud de su potestad de planeamiento por razones de interés público.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366✉*
azuia.general@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

**II.- Hitzarmenaren eremua.**

Hitzarmen hau Zuiako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikusketa Dokumentuaren testu bateginaren dokumentazio grafikoan (**2. eranskina**) UE-7 izenarekin mugatuta agertzen diren azalerei aplikatuko zaie. Azalera horiek hitzarmen honen lehenengo azalpenean deskribatutako finka guztiak eta horien ondoko eta aldameneko espazio publikoak biltzen dituzte.

**III.- Hitzarmenaren xedea.**

1.- PLANGINTZA

A) Egungo exekuzio unitatearen hirigintza kudeaketa errazte aldera, aldeek erabaki dute hura birmugatzea, eremutik kanpo utzita Murgiako 7. poligonoko 280 zenbakiko katastro partzelaren zati bat; zehazki, 1.151,26 $m^2$-ko azalera, San Martin kaleko 11. zenbakiaren parean dagoena, familia bakarreko etxebizitza dagoen partzelari dagokiona, eta gaur egun lehenengoz okupatzeko lizentziaren zain dagoena, SUR-2n jasotako hirigintza parametroak bete ditzan, eta honekin batera doan **hirugarren eranskineko** planoaren arabera.

Horretarako, jabetzak, **Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 145. artikuluan** xedatutakoaren arabera, Murgiako UE-7 exekuzio unitatea birmugatzeko proiektua aurkezteko konpromisoa hartzen du, gehienez ere bi (2) hilabeteko epean, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, betiere aurretik adierazitakoa errespetatuz. Udalak ahalik eta azkarren izapidetuko du proiektua, aplikatu beharreko hirigintza araudiaren arabera.

UE-7 exekuzio unitatea birmugatzeko proiektua behin betiko onartu ondoren, dagozkion ikuskapenak egin eta gero, beharrezkoak diren txosten teknikoak

**II.- Ámbito del convenio.**

El presente convenio es de aplicación sobre las superficies que aparecen delimitadas, con denominación U.E.-7, en la documentación gráfica del Texto Refundido del documento de Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Zuia, que se adjunta como **documento anexo número DOS** al presente, y que comprende la totalidad de las fincas descritas en el expositivo primero del presente convenio, además de los espacios públicos adyacentes y colindantes a las mismas.

**III.- Objeto del convenio.**

1.- PLANEAMIENTO

A) Con el fin de facilitar la gestión urbanística de la actual Unidad de Ejecución, las partes acuerdan redelimitar la misma, excluyendo del ámbito, parte de la parcela catastral número 280 del polígono 7 de Murgia, en concreto una superficie de 1.151,26 m2 con frente a la calle San Martín nº 11, correspondientes a la parcela donde está edificada la vivienda unifamiliar, pendiente en la actualidad de Licencia de Primera Ocupación de tal forma que la misma cumpla los parámetros urbanísticos del SUR-2, y ello de conformidad con el plano que se adjunta como **documento anexo número TRES** al presente convenio.

A tal efecto, la propiedad se compromete a presentar conforme lo dispuesto en el **artículo 145 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo de Euskadi**, en el plazo máximo de DOS (2) MESES desde la suscripción del presente convenio, un Proyecto de Redelimitación de la Unidad de Ejecución U.E.-7 de Murgia respetando lo señalado anteriormente, que el Ayuntamiento tramitará a la mayor celeridad conforme a la normativa urbanística de aplicación.

Una vez aprobada con carácter definitivo el Proyecto de Redelimitación de la Unidad de Ejecución U.E.-7, efectuadas las correspondientes inspecciones, previa emisión

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366* ✉ azuia.general@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

egin ostean, eta aldeko txostena bada, Zuiako Udalak, ahalik eta lasterren, etxebizitzaren lehenengoz okupatzeko lizentzia emango du, berariazko administrazio egintza baten bidez.

Exekuzio unitatea birmugatzeko proiektu horretatik eratorritako kostu, gastu eta ordainsari guztiak jabetzak bere gain hartuko ditu oso-osorik, eta Zuiako Udalak ez du horren inguruko zenbatekorik ordaindu beharko.

B) Hiri-diseinuaren aldaketak, Ugalde ibaia eta San Martin kaleen arteko komunikazio gisa balioko duen zeharkako bide publiko berri baten aurreikuspenaren aldaketak -hitzarmen honetan aurreikusitako etxebizitza kopurua eta tipologia direla-eta-, eta gauzatzeko aurreikusitako epeak jasotzearren, jabetzak konpromisoa hartzen du Hiri Antolamenduko Plan Berezi bat aurkezteko, gehienez ere LAU (4) HILABETEKO epean, hitzarmen hau sinatzen denetik hasita, **Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 70. artikuluan** xedatutakoa betez, antolamendu xehatuaren aldaketak baitira, **lege horren 56. artikuluan** aurreikusitakoaren arabera.

Hiri Antolamenduko Plan Berezi horrek hirigintza eta ingurumen legerian aurreikusitako edukia bete beharko du, eta, zehazki, ingurumen inpaktuaren azterlana eta beharrezkoak izan daitezkeen sektoreko beste edozein dokumentu izan beharko ditu.

Plan Berezi horretatik eratorritako kostu, gastu eta ordainsari guztiak jabetzak bere gain hartuko ditu oso-osorik, eta Zuiako Udala ez dago horri buruzko inolako zenbatekorik ordaintzera behartuta.

2.- ETXEBIZITZEN TIPOLOGIA ETA APROBETXAMENDUAK

de los correspondientes informes técnicos que sean precisos, y en el supuesto de ser los mimos favorables, por el Excmo. Ayuntamiento de Zuia se procederá, a la mayor brevedad, al otorgamiento de la Licencia de Primera Ocupación de la vivienda, mediante un acto administrativo expreso.

Todos los costes, gastos y honorarios derivados de dicho Proyecto de Redelimitación de la Unidad de Ejecución serán asumidos íntegramente por la propiedad, sin que el Excmo. Ayuntamiento de Zuia se encuentre obligado a hacer frente a importe alguno al respecto.

B) Para acoger las modificaciones de diseño urbano, de previsión de un nuevo vial público transversal que sirva de comunicación entre las calles Río Ugalde y San Martin, de número y tipología de viviendas previstas en este Convenio, así como los plazos estimados de ejecución, la propiedad se compromete a presentar en el plazo máximo de CUATRO (4) MESES desde la suscripción del presente convenio, un Plan Especial de Ordenación Urbana, conforme lo dispuesto en el **artículo 70 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo de Euskadi**, al tratarse de modificaciones de la ordenación pormenorizada, de conformidad con lo previsto en el **artículo 56 de la misma Ley 2/2006, de 30 de Junio**.

Dicha Plan Especial de Ordenación Urbana deberá ajustarse al contenido previsto en la legislación urbanística y ambiental, y específicamente deberá contar con el oportuno Estudio de Impacto Ambiental, así como con cualesquiera otros documentos de índole sectorial que puedan resultar precisos.

Todos los costes, gastos y honorarios derivados de dicho Plan Especial serán asumidos íntegramente por la propiedad, sin que el Excmo. Ayuntamiento de Zuia se encuentre obligado a hacer frente a importe alguno al respecto.

2.- TIPOLOGÍA DE VIVIENDA Y APROVECHAMIENTOS

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366* ✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

Hasieran aurreikusitako etxebizitzen tipologia aldatzea erabaki da, familia bakarreko etxebizitza atxiki edo isolatuaren tipologiara ere zabalduz, Hiri Antolamenduko Plan Berezian aurreikusitako behin betiko antolamenduaren arabera, eta betiere, SUR-2 araudia errespetatuz.

Era berean, egungo Eremu Fitxan aurreikusitako gehieneko aprobetxamenduari eustea erabaki da, hau da, 5.186,37 metro koadro eraikigarri; hala ere, Exekuzio Unitatean gauzatu beharreko etxebizitzen gehieneko kopurua 29ra murriztuko da guztira.

3.- ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

Bat etorriko da Hiri Antolamenduko Plan Berezian aurreikusitakoarekin. Plan Bereziak planoaren funtsezko alderdiak errespetatu beharko ditu, honi erantsi zaiona **LAUGARREN dokumentu** gisa.

Aurkeztu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak hirigintza garapeneko beste dokumentu batzuk ez zehazteko adinako xehetasuna izan beharko du, hirigintza kudeaketa eta exekuzioari dagozkionak alde batera utzita, hala nola hirigintza jarduketako programa, hirigintza kudeaketako hitzarmena, birpartzelazio proiektua eta urbanizazio proiektua.

Bereziki, jabetzarentzako erabaki lotesle gisa ezartzen da San Martin eta Ugalde Ibaiak komunikatuko dituen bide bat aurreikusi eta egin behar dela, hitzarmen honi erantsitako **LAUGARREN eranskineko planoan** aurreikusitako diseinu eta trazadurarekin. Bide horrek, bai eta exekuzio unitatearen barruko guztiek ere, tratamendu uniformea izango dute, galtzadarako eta espaloietarako maila bereko espazioarekin eta hiri tratamenduarekin, hitzarmen honetan itundutako moduan.

Orientazio gisa, hitzarmen honekin batera, **LAUGARREN eranskin** gisa, antolamendu plano bat erantsi da, hitzarmen honetan aurreikusitako zehaztapen nagusiak

Se acuerda modificar la tipología de vivienda prevista inicialmente ampliando la misma también a la de vivienda unifamiliar adosada o aislada, en función de la ordenación definitiva prevista en el Plan Especial de Ordenación Urbana, respetando en todo caso la normativa del SUR-2.

Igualmente se acuerda mantener el aprovechamiento máximo previsto en la actual Ficha de Ámbito, que es de 5.186,37 metros cuadrados edificables, si bien se reducirá el número máximo de viviendas a ejecutar en la Unidad de Ejecución a 29 en total.

3.- ORDENACIÓN Y GESTIÓN

Se corresponderá con la prevista en el Plan Especial de Ordenación Urbana, la cual, deberá respetar los aspectos esenciales del plano que se adjunta como **documento anexo número CUATRO** al presente.

El Plan Especial de Ordenación Urbana a presentar, deberá contener el detalle suficiente para no precisar otros documentos de desarrollo urbanístico, al margen de los correspondientes a la gestión y ejecución urbanística, como son el Programa de Actuación Urbanística, convenio de gestión urbanística, Proyecto de Reparcelación y el Proyecto de Urbanización.

En especial, se establece como determinación vinculante para la propiedad la necesidad de prever y ejecutar un vial que comunique las calles San Martín y Río Ugalde, con el diseño y trazado previstos en el plano anexo al presente convenio como **documento anexo número CUATRO**. Dicho vial, así como todos los interiores de la Unidad de Ejecución, tendrán un tratamiento uniforme, con el espacio para calzada y aceras al mismo nivel, y con tratamiento urbano, en la forma pactada en el presente convenio.

A título orientativo se acompaña a este Convenio, como **documento anexo número CUATRO**, un plano de ordenación que recoge las principales determinaciones previstas en

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● 945 430005 ● Fax: 945 430366*
azuia.general@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

eta bideen akabera orokorrak jasotzen dituena.

Indarrean dauden UE-7 exekuzio unitaterako arau subsidiarioen testuan eta horren 7. kudeaketa fitxan aurreikusitakoaren arabera, hitzarmen sistemaren bidezko kudeaketa pribatu gisa aurreikusiko da, eta, beraz, hura garatu eta gauzatzeari dagozkion gastu guztiak jabetzaren kontura izango dira.

Alderdiek adosten dute jabetzak hirigintza kudeaketari dagozkion dokumentuak aurkeztuko dituela, gehieneko epe hauetan:

- Urbanizatzeko jarduketa programa: gehienez ere HILABETEKO (1) epean, Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartzen denetik hasita.
- Kudeaketa hitzarmena: gehienez ere HILABETEKO (1) epean, Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartzen denetik hasita.
- Birpartzelazio proiektua: gehienez ere HIRU (3) hilabeteko epean, kudeaketa hitzarmena behin betiko onartzen denetik aurrera.

Epe horiek gehienezkoak dira, eta, beraz, jabetzak epe horiek murriztu ahal izango ditu, edo, legez onargarria bada, aldi berean izapidetu ahal izango ditu hirigintza dokumentuak.

Nolanahi ere, eremuaren garapenean eta kudeaketan, jabetzak dagozkion legezko betebehar guztiak errespetatu eta bete beharko ditu, eta, bereziki, bermeak emateari eta konpromisoak hartzeari dagokienez.

4.- <u>LAGAPENAK ETA HIRIGINTZA ESTANDARRAK</u>

Hitzarmen honetan adostutakoaren arabera izapidetu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak, Hirigintza Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012

este Convenio, así como los acabados generales de los viales.

De igual forma a lo previsto en el texto de las vigentes Normas Subsidiarias para la Unidad de Ejecución U.E.-7 y su ficha de gestión número 7, se preverá como gestión privada mediante el sistema de concertación, por lo que todos los gastos inherentes al desarrollo y ejecución de la misma serán a cargo de la propiedad.

Se pacta ente las partes que por parte de la propiedad se procederá a la presentación de los documentos correspondientes a la gestión urbanística en los siguientes plazos máximos:

- Programa de Actuación Urbanizadora: en el plazo máximo de UN (1) MES desde la aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana.
- Convenio de gestión: en el plazo máximo de UN (1) MES desde la aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana.
- Proyecto de Reparcelación: en el plazo máximo de TRES (3) desde la aprobación definitiva del convenio de gestión.

Los señalados plazos tienen el carácter de máximos, por lo que la propiedad podrá reducir los mismos, o en su caso, simultanear, si ello es legalmente admisible, la tramitación de los diferentes documentos urbanísticos.

En todo caso, en el desarrollo y gestión del ámbito, la propiedad vendrá obligada a respetar y cumplir con la totalidad de las obligaciones legales que procedan, y en especial, en lo referente a la aportación de garantías, y asunción de compromisos.

4.- <u>CESIONES Y ESTÁNDARES URBANÍSTICOS</u>

El Plan Especial de Ordenación Urbana a tramitar en virtud de lo acordado en el presente convenio, deberá cumplir los estándares mínimos previstos en el Decreto

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366✉*
azuia.general@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

Dekretuan aurreikusitako gutxieneko estandarrak bete beharko ditu.

Horretarako, **LAUGARREN eranskinean** aurreikusitako gutxieneko lagapen lotesle hauek ezartzen dira:

1.- 1053,50 $m^2$-ko azalera lagatzea zuzkidura publikoetarako, hitzarmen honi erantsitako planoan adierazten denaren arabera.

2.- 2.830,75 $m^2$-ko azalera lagatzea, hitzarmen honi erantsitako planoan jasotakoaren arabera, Zuiako indarreko Plangintzako Arau Subsidiarioetan espazio libreen tokiko sistema gisa kalifikatutako Berdegunerako.

3.- Udalak ekipamendu publikorako erabiliko duen Villa Jesusa eraikina lagatzea, gaur egun duen egoeran.

Aurreko azalerak eta aipatutako eraikina lagata, exekuzio unitatea kudeatzeagatik Zuiako Udalari dagozkion lagapen guztiak betetzat joko dira, hirigintza aprobetxamenduaren nahitaezko lagapena barne, tokiko sistemetara bideratutako bideei dagozkienak izan ezik.

Alderdiek hitzartzen dute aipatutako higiezina, 7. poligonoko 284. zenbakiko katastro partzelaren gainean dagoena, "Villa Jesusa" izenekoa, Erkidegoak hirigintza ekintzaren ondoriozko gainbalioetan duen partaidetza konpentsatzeko ematen dela; beraz, Zuiako Udalari ez zaio bizitegi aprobetxamendurik esleituko, eta horren ordez, higiezin hori inolako kargarik gabe entregatuko da.

Ondorio horietarako, **Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 7. atalean** xedatutakoarekin bat, horri buruzko aditu balorazioa erantsi da, **BOSGARREN eranskin** gisa.

123/2012, de 3 de Julio, de Estándares Urbanísticos.

A tal efecto se establecen las siguientes cesiones mínimas vinculantes, previstas en el **documento anexo número CUATRO**:

1.- La cesión de una superficie de 1053,50 m2, conforme queda reflejado en el plano anexo a este convenio, con destino a dotaciones públicas.

2.- La cesión de una superficie de 2.830,75 m2, conforme queda reflejado en el plano anexo a este convenio, con destino a Zona Verde, calificada como sistema local de espacios libres en las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zuia.

3.- La cesión del edificio Villa Jesusa, en su estado actual, que se destinará a equipamiento público por el Ayuntamiento.

Con la cesión de las superficies anteriores y de la edificación mencionada se entienden cumplimentadas la totalidad de cesiones que corresponden al Excmo. Ayuntamiento de Zuia por la gestión de la Unidad de Ejecución, incluida la cesión obligatoria de aprovechamiento urbanístico, salvo las correspondientes a viales destinados a sistemas locales.

Se pacta entre las partes que la entrega del inmueble señalado, existente sobre la parcela catastral número 284 del polígono 7, y denominado “Villa Jesusa”, se efectúa en compensación a la participación de la Comunidad en las plusvalías derivadas de la acción urbanística, por lo que no procederá la adjudicación a favor del Excmo. Ayuntamiento de Zuia de aprovechamiento residencial alguno, entendiéndose sustituido por la entrega de dicho inmueble libre de toda carga.

A estos efectos, y de conformidad con lo dispuesto en la **Disposición Adicional Séptima, apartado 7 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo**, se adjunta como **documento anexo número CINCO**, valoración pericial al respecto.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366✉*
azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus

Aurreko lagapenen jabetza eskualdatzea, bai eta exekuzio unitateko bideei dagozkienak ere, Birpartzelazio Proiektuan gauzatuko da. Proiektu hori Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartu eta hirigintza exekuziorako beharrezkoak diren gainerako dokumentuak izapidetu eta onartu ondoren izapidetuko da.

Hala ere, Villa Jesusak kokaleku duen berdeguneari eta partzelaren gainerakoari dagokienez, jabetzak baimena ematen du erabilera lagatzeko eta une horretatik aurrera Udalaren esku uzteko; hala ere, urbanizazioa hitzartutako egutegian egingo da.

Exekuzio unitatean beharrezkoak diren aparkalekuak betetzeari dagokionez, 63 plaza ezarri dira lurzati eraikigarrien barruan, 10 plaza zuzkidura eraikin pribatuari lotuta, eta gainerako 22 plazak espazio publikoan.

Eta zuhaizti eta landaredirako aurreikusitakoa betetzeari dagokionez, berdegunerako erabiltzen den 284. partzelaren azaleran dauden zuhaiztiak mantenduko dira. Dagoeneko 60 zuhaitz daude bertan.

5.- URBANIZAZIOA

Alderdiek adosten dute exekuzio unitatearen urbanizazioa jabetzak horretarako aurkeztu beharko duen urbanizazio proiektuaren arabera egingo dela, eta proiektu horrek hitzarmen honen **SEIGARREN eranskinean** jasotako Kalitateen Memoriara egokitu eta bera errespetatuko duela.

Ondorio horietarako, jabeak konpromisoa hartzen du Urbanizazio Proiektua Unitatearen Birpartzelazio Proiektuarekin batera eta aldi berean aurkezteko.

Urbanizazio proiektua idazteari dagozkion kostu eta ordainsari guztiak jabetzak hartuko ditu bere gain, eta Zuiako Udalak ez du inolako zenbatekorik ordaindu

La transmisión de la propiedad de las cesiones anteriores, así como las correspondientes a los viales de la Unidad de Ejecución, se materializará en el Proyecto de Reparcelación que se tramite una vez aprobado definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana y tramitados y aprobados el resto de documentos precisos para la ejecución urbanística.

No obstante, por lo que se refiere a la zona verde y resto de parcela donde se ubica Villa Jesusa, la propiedad consiente la cesión de uso y puesta a disposición a favor del Ayuntamiento desde este momento, si bien la urbanización de la misma se hará en el calendario pactado.

Por lo que se refiere al cumplimiento de los aparcamientos necesarios en la Unidad de Ejecución, se fijan éstos en 63 plazas en el interior de las parcelas edificables, 10 plazas vinculadas al edificio dotacional privado, y las restantes 22 plazas en espacio público.

Y en cuanto al cumplimiento de lo previsto a efectos de arbolado y vegetación, se da cumplimiento al mismo con el arbolado existente en la superficie de la parcela 284 que se destina a zona verde, en la que ya existen 60 árboles.

5.- URBANIZACIÓN

Se pacta entre las partes que la urbanización de la Unidad de Ejecución se realizará conforme al Proyecto de Urbanización que a tal efecto deberá presentar la propiedad, el cual se ajustará y respetará la Memoria de Calidades que se adjunta como **documento anexo número SEIS** al presente convenio.

A estos efectos, la propiedad se compromete a presentar el Proyecto de Urbanización de manera simultánea y conjunta con el Proyecto de Reparcelación de la Unidad.

Todos los costes y honorarios correspondientes a la redacción del Proyecto de Urbanización serán asumidos por la propiedad, sin que el Excmo. Ayuntamiento de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● 945 430005 ● Fax: 945 430366*
azuia.general@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

beharko, ezta horietan parte hartu beharko ere.

Bideen akabera galtzada-harrizkoa egingo da oinezkoentzako gunean, eta asfaltozkoa errodadura eremuan, San Martin kaleko 11. zenbakiko etxebizitzaren aurrealdea izan ezik, oraingo urbanizazioarekin mantenduko baita.

Une honetan ezin denez zehaztu exekuzio unitatean aurreikusitako urbanizazio obren zenbateko osoa LHLren 160. artikuluko 6. zenbakian aurreikusitako ondorioetarako, Zuiako Udalak baimena ematen du 432038 zenbakidun abala, 179.859,00 €-koa, bere esku dagoena, bere garaian jabetzak gordailatu zuelako aurreko UE-7ren betebeharrak bermatzeko, unitate osoa urbanizatzeko betebeharrari aldi baterako lotuta geratzen bada ere, baimena ematen du aipatutako artikuluan aurreikusitakoa ordezteko, behin betiko onartzen den Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Ekonomia eta Finantza Azterlanaren arabera kalkulatuta. Une horretan, 432038 zenbakidun abala itzuliko du.

6.- <u>URBANIZAZIO FASEAK</u>

Aldeek adostu dute urbanizazioa honako fase hauen arabera egingo dela (**<u>ZAZPIGARREN eranskineko</u>** planoan daude jasota):

- 0 fasea: exekuzio unitatea birmugatzea, 7. poligonoko 280. partzelaren zati bat kentzeko.

- 1. fasea: Ugalde ibaia kaleko lehen zatiari, San Martin eta Ugalde ibaia kaleen arteko bide berriaren urbanizazioari eta kalearen aurrean dauden etxebizitzei dagokie.

- 2. fasea: San Martin kalearen aurrean dauden etxebizitzak, eta dagokien urbanizazioa.

Zuia deba abonar cantidad alguna, ni participar en los mismos.

El acabado de los viales se realizará en adoquín en la zona peatonal, y en asfalto la zona de rodadura, con excepción del frente de la vivienda del nº 11 de la calle San Martín, que se mantendrá con su actual urbanización.

No siendo posible en este momento determinar el importe total de las obras de urbanización previstas en la Unidad de Ejecución a los efectos previstos en el apartado 6 del artículo 160 LSU, el Ayuntamiento de Zuia consiente que el aval nº 432038, por importe de 179.859,00 € que obra en su poder por haberlo depositado en su día la propiedad para garantizar las obligaciones de la anterior UE-7, quede temporalmente afecto a las obligación de urbanización del conjunto de la Unidad, si bien autoriza su sustitución por el previsto en el artículo citado calculado conforme resulte del Estudio Económico-Financiero del Plan Especial de Ordenación Urbana que se apruebe definitivamente, momento en el que procederá a la devolución del aval nº 432038.

6.- <u>FASES DE URBANIZACIÓN</u>

Las partes pactan que la ejecución de la urbanización se efectuará conforme a las siguientes fases, que constan en el plano adjunto como **<u>documento anexo número SIETE</u>**:

- Fase 0: redelimitación de la Unidad de Ejecución para la exclusión de la misma de parte de la parcela 280 del polígono 7.
- Fase 1: correspondiente al primer tramo de la calle Río Ugalde, y a la urbanización del vial de nueva creación ente las calles San Martín y Río Ugalde, y a las viviendas que dan frente al mismo.
- Fase 2: viviendas con frente a la calle San Martín, y urbanización correspondiente.

- 3. fasea: Ugalde ibaia kalearen aurrean dauden etxebizitzak, eta dagokien urbanizazioa.
- 4. fasea: San Martin kalearen aurrean dauden etxebizitzen jarraipena, eta dagokien urbanizazioa.
- 5. fasea: exekuzio unitatearen ekialdean dagoen familia bakarreko etxebizitza.

Fase bakoitzeko urbanizazioa gauzatzeko (amaitzeko eta hartzeko) gehieneko epea aurreko fasean eraikitako etxebizitzak entregatzeari lotuta egongo da. Gehienez ere HIRU (3) urteko epea ezarriko da etxebizitza bakoitzeko, eta gehienez ere HAMABOST (15) urteko epea.

Hala ere, fase bakoitzeko etxebizitzen %80ren baliokideak diren eraikuntza lizentziak ematen direnean, hurrengo faseko epea zenbatzen hasiko da.

Jabetzak aurreikusitako urbanizazio faseak aurreratu ahal izango ditu.

Lehen fasearen epea Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartzen den unean hasiko da kontatzen.

**IV.- Akzio judizialetan atzera egitea.**

Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegian, M.A.R.I. andreak Zuiako Udalaren aurka jarritako prozedura bat izapidetzen ari da, 964/2017-E prozedura arrunt gisa, San Martin kaleko 11. zenbakiko etxebizitza lehen aldiz okupatzeko lizentzia lortzeko.

Hitzarmen honen xedea da, besteak beste, UE-7 exekuzio unitatea birmugatzea, etxebizitza hori kokatuta dagoen partzela partzelatik kanpo uzteko, eta horrek, hala badagokio, lehen okupazioko lizentzia ematea ahalbidetuko duenez, aldeek hitzartzen dute prozedura judizial horrek etenda edo behin-behinean artxibatuta jarraituko duela, lizentzia hori ematen den unera arte.

- Fase 3: viviendas con frente a la calle Río Ugalde, y urbanización correspondiente.
- Fase 4: continuación de viviendas con frente a la calle San Martín, y urbanización correspondiente.
- Fase 5: vivienda unifamiliar al este de la Unidad de Ejecución.

El plazo máximo para la ejecución (terminación y recepción) de la urbanización de cada una de las fases estará vinculado a la entrega de las viviendas edificadas en la fase anterior, estableciéndose un plazo máximo de TRES (3) AÑOS por cada una de ellas, y un plazo máximo total de QUINCE (15) AÑOS.

No obstante, en el momento en el que fueran otorgadas licencias de construcción equivalentes al 80% de las viviendas de cada fase comenzará el inicio del cómputo del plazo de la fase siguiente.

La propiedad podrá adelantar las fases previstas de urbanización.

El plazo de la primera fase, o fase 1, comenzará a computar desde el momento de la aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana.

**IV.- Desistimiento de acciones judiciales.**

En la actualidad se tramita en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº dos de Vitoria-Gasteiz, como procedimiento ordinario 964/2017-E, un procedimiento interpuesto por Dª M.A.R.I. contra el Ayuntamiento de Zuia, para la obtención de la licencia de primera ocupación de la vivienda sita en el nº 11 de la calle San Martín.

Dado que es objeto del presente convenio, entre otras cuestiones la redelimitación de la Unidad de Ejecución U.E.-7 al objeto de excluir de la misma la parcela sobre la que se ubica dicha vivienda, lo cual, en su caso, posibilitará el otorgamiento de la oportuna licencia de primera ocupación, se pacta entre las partes que el señalado procedimiento judicial continuará suspendido, o archivado

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366✉*
azuia.general@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366✉*
azuia.general@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

Behin baimena emanda, jabetzak atzera egingo du aipatu prozeduran, eta alderdi bakoitzak bere gain hartuko ditu bere kostu judizialak eta dagozkion gastuak.

**V.- Baldintza etengarriaren mende jartzea.**

Aldeen arteko akordioak, hitzarmen honen xede direnak, honako **baldintza etengarri honen mende** geratzen dira: gehienez ere BI (2) URTEKO epean, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, tramitatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartu eta adierazitako moduan aditzera eman behar da, jarraian aipatzen diren salbuespenekin.

Aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen bada Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartu gabe, edo epe horren aurretik onarpen hori ukatu bada, hitzarmen hau ondoriorik gabe geratuko da, ondoren aipatzen diren salbuespenak izan ezik, horiek jasotako erabakien arabera arautuko baitira.

Hala, aipatutako baldintza etengarria betetzetik salbuesten da UE-7 exekuzio unitatea birmugatzeko proiektua izapidetzeari dagokion guztia, Murgiako 7. poligonoko 280. zenbakiko katastro partzelaren zati horretatik eta horren gainean dagoen etxebizitzatik kanpo uzteko, bai eta, hala badagokio, azken horri lehen okupazioko lizentzia ematea, eta aurreko zenbakian erabakitako ekintza judizialetan atzera egitea ere.

Era berean, baldintza etengarri hau betetzetik salbuesten da hitzarmen honen hirugarren estipulazioko 4. atalean erabakitako azaleraren lagapena, espazio libreen tokiko sistema gisa kalifikatutako berdeguneari dagokiona, bai eta zuzkidura publikoei ere; azken hori, nolanahi ere, hitzarmen hau sinatzen den unean egiaztatuko da, dagokion lagapen akta sinatuta.

con carácter provisional, hasta el momento en que se otorgue dicha licencia.

Una vez otorgada la misma, la propiedad procederá a desistir del citado procedimiento, asumiendo cada parte sus costas judiciales y gastos correspondientes.

**V.- Sometimiento a condición suspensiva.**

Los acuerdos alcanzados entre las partes y que son objeto del presente convenio quedan **condicionados con carácter suspensivo** a que en el plazo máximo de DOS (2) AÑOS desde la suscripción del presente convenio se proceda a la aprobación definitiva y publicación en los términos señalados, del Plan Especial de Ordenación Urbana a tramitar, con las excepciones que a continuación se señalarán.

En el supuesto de que transcurra el plazo máximo señalado en el párrafo anterior sin que se haya procedido a la aprobación del Plan Especial de Ordenación Urbana, o si con anterioridad a dicho plazo se ha procedido a la denegación de dicha aprobación, el presente convenio quedará sin efectos, salvo las excepciones que a continuación se señalan, las cuales se regirán por los acuerdos contenidos.

Así, se exceptúa del sometimiento a la condición suspensiva señalada todo lo referente a la tramitación del proyecto de redelimitación de la Unidad de Ejecución U.E.-7 al objeto de excluir de la misma parte de la parcela catastral número 280 del polígono 7 de Murgia, y la vivienda existente sobre la misma, así como la concesión en su caso de la licencia de primera ocupación a esta última, y el desistimiento de las acciones judiciales acordado en el apartado anterior.

Igualmente, se exceptúa también del sometimiento de la presente condición suspensiva, la cesión de la superficie acordada en la Estipulación Tercera, apartado 4 del presente convenio, correspondiente a zona verde calificada como sistema local de espacios libres, y a dotaciones públicas, la cual se verificará en todo caso en el momento de suscripción del presente convenio, mediante la firma de la correspondiente acta de cesión.

Alderdiek sinatu beharreko lagapen aktan, aurretiazko lagapenaren xede den azalerari dagozkion eraikuntza eskubideak jabetzaren alde aitortuko direla jasoko da, baldintza etengarri hori betetzen ez bada.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

En el acta de cesión a suscribir entre las partes, se contemplará el reconocimiento a favor de la propiedad de los derechos edificatorios correspondientes a la superficie que es objeto de cesión anticipada, para el supuesto de que no se proceda al cumplimiento de la presente condición suspensiva.

Y en prueba de conformidad, firman las partes el presente convenio por duplicado ejemplar en el lugar y fecha indicados en su encabezamiento.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366* ✉ azuia.general@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus